

## ENPRESEN EGOERA

Salmentak, kanpo  
merkataritza, enplegua eta  
soldatak

## HILEKO TXOSTENA

> 2022ko iraila

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas

## AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatu ohi ditu Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera.

Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da argitalpen honen bidez.

Argitalpen honetako informazioa lortzeko, erabili dira **Gipuzkoan sozietate egoitza duten enpresa EZ finantzarioek** hilero aurkezten dituzten **aitorpenak**: Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak.

Normalean, informazio hau hilero argitaratzen da; dena den, uztailea eta abuztuko datuen analisisia batera egiten da; izan ere, uztaileko aitorten-likidazioa aurkezteko epea, udara dela-eta, hilabete luzatzen da, irailaren 25eraino.

Eranskinaren hasieran dagoen oharrean aipatzen den bezala, metatutako epealdietako (hiruhilekoak, urtekoak...) bariazioak kalkulatzekoan populazio konstantearen irizpidea erabili ordez, batez besteko ponderatuaren irizpidea erabiltzen da.


### EZAUGARRI NAGUSIAK

- 2022ko lehen bederatzi hilabeteetan Gipuzkoako enpresen salmentak %15,5 igo dira, 2021eko epealdi berdinarekin alderatuta. Esportazioen hazkundea zertxobait handiagoa izan da (+%18,6), eta barruko salmentena zertxobait txikiagoa (+%13,9).
- Hala ere, kontuan izan behar da iazko lehen bederatzi hilabete horietan covid-19aren pandemiaren kutsadura-olatuetako baten hazkunderari aurre egiteko murrizketek eragin zuela, eta horrek eragin nabarmena izan zuela jardueran. Ildo horretan, argigarriagoa da alderaketa 2019ko epealdi berdinarekin egitea. Horrela, salmenta osoak +%17,1 igo dira (barrukoak +%15,9 eta esportazioak +%19,4). Beraz, 2022ko lehenengo bederatzi hilabete hauetan, salmentek epealdi arrunt batean baino maila handiagoa izan dute. 2020ko lehen bederatzi hilabeteetan pandemiaren intzidentzia nabarmena izan martxoaren erdialdetik aurrera, eta, aldi horrekin alderatuta salmentak gehiago igo dira; zehazki, +%36,0 (barrukoak +%31,7 eta esportazioak +%44,4).
- Lan-merkatuan, 2022ko lehen bederatzi hilabeteetan lan etekinen jasotzaileen kopurua %2,1 igo da urte arteko terminoetan. Hemen ere 2019 eta 2020ko epealdi berdinarekin alderatuta hazkunderak ematen dira (+%1,9 eta +%4,6 hurrenez hurren). Ordaindutako soldatetan joera berdina nabaritzen da: 2021eko lehen bederatzi hilabeteekin alderatuta +%6,5 igo dira, 2019ko epealdi berdinarekin +%9,2, eta 2020koarekin +%13,8.

#### 1. taula - GIPUZKOA KO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (Urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Urtarrila-Iraila 2019/2022	Δ% Urtarrila-Iraila 2020/2022	Δ% Iraila 2021/2022	Δ% Urtarrila-Iraila 2021/2022
Salmenta osoak	17,1	36,0	11,0	15,5
Barruko salmentak	15,9	31,7	3,3	13,9
Esportazioak	19,4	44,4	26,8	18,6
Inportazioak	26,0	52,3	18,0	27,2
Enplegua	1,9	4,6	1,2	2,1
Soldatak	9,2	13,8	6,8	6,5

#### 1. grafikoa - SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



## SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

- 2022ko lehen bederatz hilabeteetan salmentak igo egin dira sektore guztietan, baina industrian eta zerbitzuetan askoz ere indar handiagoz


Orokorrean eman den hazkunde handi hori (+%15,5), eman da baita industria sektorean (+%17,8) eta zerbitzuetan (+%13,1). Eraikuntzan salmenta osoak %9,3 igo dira urteko lehen bederatz hilabete hauetan, gehienbat maiatzetik aurrera izandako hazkundeengatik; izan ere, 2022ko lehen lauhilekoan salmentak modu nabarmenean jaitsi ziren sektore honetan.

Lehen esan bezala, alderaketa homogeneousagoa eginez gero (adibidez, 2019ko lehen bederatz hilabeteekin), salmenta osoak %17,1 igo dira. Kasu horretan ere, eta sektoreka aztertuz gero, salmentek joera antzekoa erakusten dute: igo egin dira industrian (+%20,3) eta zerbitzuetan (+%18,1), eraikuntzan jaitsi egiten diren bitartean (-%16,6).

2 taula - SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Urtarrila - Iraila
<b>Salmenta osoak</b>	<b>11,0</b>	<b>15,5</b>
▪ Industria	12,9	17,8
▪ Eraikuntza	18,0	9,3
▪ Zerbitzuak	7,7	13,1

2 grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK  
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



### ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

- Gipuzkoako enpresen esportazioak %18,6 igo dira 2022ko lehen bederatzi hilabeteetan

2022ko lehen bederatzi hilabete hauetan Gipuzkoako enpresen esportazioak +%18,6 hazi dira, 2021eko epealdi berdinarekin alderatuta. Baina, kontuan izan behar da, hazkunde handi hori pandemiaren eraginpeko aldi batekin alderatuta gertatu dela. Konparaketa homogeenago batek, 2019ko lehen bederatzi hilabeteekin esaterako, erakusten du esportazioak %19,4 hazi direla. Inportazioen kasuan, +%27,2ko igoera eman da 2021eko lehen bederatzi hilabeteen aldean, eta +%26,0 2019ko epealdi horrekin alderatuz.


Kanpo merkataritza horren noranzkoa begiratuta, EBra egindako esportazioak +%17,0 hazi dira 2021aren aldean, eta gainerako herrialdeetara egindakoak +%20,6 handitu dira. Inportazioen kasuan, eta erosketa horien jatorria aztertuta, EBtik egindakoak %20,4 igo dira, eta EBtik kanpotik egindakoak, berriz, gehiago hazi dira (+%47,6).

3. taula – ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Urtarrila - Iraila
<b>Esportazioak</b>	<b>26,8</b>	<b>18,6</b>
▪ Europar Batasuna	13,4	17,0
▪ Munduko gainerako herrialdeak	45,7	20,6
<b>Inportazioak</b>	<b>18,0</b>	<b>27,2</b>
▪ Europar Batasuna	10,5	20,4
▪ Munduko gainerako herrialdeak	41,5	47,6

3. grafikoa - ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



## SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

- 2022ko lehen bederatzi hilabeteetan %2,1 igo da Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua

2022ko lehen bederatzi hilabete hauetan Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua %2,1 igo da, aurreko urteko epealdi berdinarekin alderatuta.


Oro har, pandemiako garai osoan zehar enpleguak izan duen bilakaera salmentena baino askoz egonkorragoa izan da. Eta hori, gehienbat, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteei (ABEEE) esker izan da. Bestetik, eragina du baita adierazle hori kalkulatzeko metodologiak ere: lan egin duen pertsona bezala hartzen da, edozein hilabete epean enpresatik gutxienez soldata bat jaso duten pertsonen kopurua, zenbatekoa edozein dela ere.

Datuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da enplegua igo egin dela industria sektorean (+%1,6) eta zerbitzuetan (+%2,9); eraikuntzan, berriz, jaitsi egin da (-%1,1).

## 4. taula – SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Urtarrila - Iraila
<b>Enplegu osoa</b>	<b>1,2</b>	<b>2,1</b>
▪ Industria	0,6	1,6
▪ Eraikuntza	-1,5	-1,1
▪ Zerbitzuak	2,0	2,9

4. grafikoa - SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA  
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





### SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

- 2022ko lehen bederatzia hilabeteetan Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak %6,5 igo dira, aurreko urteko epealdi berdinarean aldean

Urteko lehen bederatzia hilabete hauetan soldaten igoera +%6,5koa izan da. Oro har, eta pandemiaren eragina ekonomian gutxitzen hasi zenetik, soldaten bilakaera enpleguarena baino hobea izan da. Lehen aipatutako arrazoiengatik izan daiteke hori. Alde batetik, ABEEEn eraginez, eta bestalde, adierazlea kalkulatzeko metodologiarengatik.

Soldaten sektorekako bilakaerari dagokionez, igoerarik handiena industrian eta zerbitzuetan eman da (+%6,6 eta +% 6,4, hurrenez hurren), eta eraikuntzak, berriz, +%4,2 igo dira.


Lehenago aipatu den bezala, 2022ko lehen bederatzia hilabeteetan enpleguak (+%2,1) soldatek baino gutxiago egin dute gora (+%6,5); beraz, langile bakoitzeko batez besteko ordainsariak %4,4 egin du gora. Industrian enplegua %1,6 igo da eta soldatak %6,6 hazi dira; beraz, batez besteko ordainsaria %5,0 igo da. Eraikuntzan enplegua jaitsi egin da (-%1,1), eta, aldiz, soldatak igo egin dira (+%4,2); eta, beraz, batez besteko ordainsaria %5,3 igo da. Zerbitzuen sektorean, enpleguak +%2,9 egin du gora, eta soldatak, berriz, gehiago igo dira (+%6,4); beraz, batez besteko ordainsariak %3,5 egin du gora.

5. taula – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Urtarrila - Iraila
<b>Soldata osoak</b>	<b>6,8</b>	<b>6,5</b>
▪ Industria	7,5	6,6
▪ Eraikuntza	8,4	4,2
▪ Zerbitzuak	5,6	6,4

5. grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





## **GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK, KANPO MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA SOLDATAK**

Estatistiken eranskina

---

### **Oharra.**

Eranskin honetan hileroko bariazio tasak ematerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili da. Hau da, bariazio tasa kalkulatu da bi urtez jarraian hilabete berean aitortzen duten enpresekin. Populazio konstantearen araberako bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egoztea.

Aldiz, hiruhileko, urteko eta epealdi metatuei dagozkion bariazioak kalkulatzeko batez besteko ponderatuak erabili dira.



1 taula - SALMENTA OSOAK: BARRUKO SALMENTAK ETA ESPORTAZIOAK

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2020	-10,1	-9,1	-11,9
2021	16,8	15,8	18,7
2021 (1)	19,3	17,0	23,9
2022 (1)	15,5	13,9	18,6
2020 I	-7,1	-6,0	-9,0
II	-23,1	-20,5	-27,8
III	-9,6	-7,5	-13,7
IV	-1,2	-2,9	2,0
2021 I	6,4	4,9	9,3
II	38,3	35,4	44,0
III	15,3	12,6	20,9
IV	11,0	13,1	7,3
2022 I	15,9	15,6	16,5
II	18,7	16,6	22,7
III	11,7	9,4	16,1
2021 urtarrila	-5,2	-6,3	-2,7
otsaila	3,6	0,3	10,0
martxoa	20,3	21,3	18,6
apirila	46,1	41,0	57,0
maiatza	37,0	33,2	44,6
ekaina	33,7	33,0	35,0
uztaila	18,3	9,6	36,9
abuztua	12,7	12,2	13,8
iraila	14,2	16,1	10,4
urria	12,1	8,1	19,4
azaroa	15,6	19,5	8,6
abendua	6,9	12,2	-2,3
2022 urtarrila	20,1	16,5	27,3
otsaila	15,7	15,8	15,6
martxoa	13,0	14,9	9,7
apirila	16,9	14,6	21,3
maiatza	22,4	20,8	25,5
ekaina	16,8	14,3	21,2
uztaila	6,4	10,3	-0,4
abuztua	20,7	16,8	29,0
iraila	11,0	3,3	26,8

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak

## 2. taula - PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	7,1	13,1	7,7	-1,6
2007	7,1	7,5	11,8	5,6
2008	0,0	1,8	10,5	-4,8
2009	-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010	2,1	6,0	-21,8	2,1
2011	0,5	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,3	3,4	0,9	3,4
2015	4,9	5,4	-7,5	6,3
2016	0,4	-0,7	-5,4	2,9
2017	7,5	6,3	5,1	9,6
2018	6,6	6,5	0,7	7,4
2019	2,8	2,6	-2,0	4,0
2020	-10,1	-12,9	-14,7	-5,5
2021	16,8	21,6	-9,8	14,4
2021 (1)	19,3	25,8	-14,7	16,1
2022 (1)	15,5	17,8	9,3	13,1
2020 I	-7,1	-10,5	-14,6	-1,1
II	-23,1	-27,2	-19,8	-17,8
III	-9,6	-13,8	-11,4	-4,0
IV	-1,2	-1,2	-12,7	0,4
2021 I	6,4	9,3	-10,1	4,9
II	38,3	45,8	2,3	34,2
III	15,3	25,0	-33,2	11,5
IV	6,9	1,5	49,1	8,9
2022 I	15,9	19,5	-3,4	13,5
II	18,7	21,6	7,0	16,1
III	11,7	11,9	27,7	9,8
2021 urtarrila	-5,2	-2,6	-26,3	-5,9
otsaila	3,6	7,0	-11,1	1,1
martxoa	20,3	21,9	4,3	20,2
apirila	46,1	55,9	17,4	38,4
maiatza	37,0	49,2	6,4	26,4
ekaina	33,7	35,8	-13,5	38,0
uztaila	18,3	34,3	-42,5	7,8
abuztua	12,7	19,5	-35,2	14,0
iraila	14,2	19,0	-21,7	13,4
urria	12,1	20,7	-29,8	6,5
azaroa	15,6	18,7	-17,7	15,9
abendua	6,9	1,5	49,1	8,9
2022 urtarrila	20,1	25,7	10,1	14,2
otsaila	15,7	21,1	-12,4	12,0
martxoa	13,0	13,9	-4,0	14,1
apirila	16,9	20,2	-15,9	17,0
maiatza	22,4	23,5	9,6	22,6
ekaina	16,8	21,1	28,5	9,5
uztaila	6,4	2,9	39,6	8,8
abuztua	20,7	27,0	27,3	13,8
iraila	11,0	12,9	18,0	7,7

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

3. taula – ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOAK INGURUNE GEOGRAFIKOEN ARABERA

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	EB	BESTEAK	Guztira	EB	BESTEAK
<b>2006</b>	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
<b>2007</b>	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
<b>2008</b>	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
<b>2009</b>	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
<b>2010</b>	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
<b>2011</b>	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
<b>2012</b>	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
<b>2013</b>	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
<b>2014</b>	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
<b>2015</b>	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
<b>2016</b>	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
<b>2017</b>	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
<b>2018</b>	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
<b>2019</b>	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
<b>2020</b>	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
<b>2021</b>	18,7	3,4	45,3	22,0	17,6	36,3
<b>2021 (1)</b>	23,9	8,2	52,9	20,6	18,1	28,7
<b>2022 (1)</b>	18,6	17,0	20,6	27,2	20,4	47,6
<b>2020 I</b>	-9,0	-9,6	-7,9	-10,2	-11,3	-6,1
<b>II</b>	-27,8	-26,3	-30,5	-27,2	-29,4	-19,8
<b>III</b>	-13,7	-12,8	-15,2	-14,1	-14,7	-12,2
<b>IV</b>	2,0	-3,1	10,4	-2,1	-3,3	2,1
<b>2021 I</b>	9,3	-3,2	32,0	4,2	0,2	17,9
<b>II</b>	44,0	27,8	74,1	38,7	36,0	46,9
<b>III</b>	20,9	2,1	56,2	22,6	22,3	23,3
<b>IV</b>	7,3	-8,0	30,7	25,6	16,3	56,6
<b>2022 I</b>	16,5	17,6	14,9	32,2	27,0	47,7
<b>II</b>	22,7	19,3	27,1	28,9	22,9	46,3
<b>III</b>	16,1	13,7	19,0	20,7	11,6	49,0
<b>2021 urtarrila</b>	-2,7	-13,4	20,2	-9,9	-10,2	-8,9
<b>otsaila</b>	10,0	-0,5	27,6	-0,8	-4,2	10,2
<b>martxoa</b>	18,6	3,4	44,6	24,0	14,5	61,7
<b>apirila</b>	57,0	48,3	70,7	40,8	39,4	45,0
<b>maiatza</b>	44,6	27,1	74,2	38,7	39,7	36,1
<b>ekaina</b>	35,0	16,3	76,8	36,8	30,2	62,1
<b>uztaila</b>	36,9	8,8	89,4	29,5	26,8	38,6
<b>abuztua</b>	13,8	2,3	31,3	19,2	19,6	18,1
<b>iraila</b>	10,4	-4,2	41,7	19,2	20,4	15,8
<b>urria</b>	19,4	-3,3	59,9	21,1	8,6	68,4
<b>azaroa</b>	8,6	-11,3	47,0	32,8	21,6	73,1
<b>abendua</b>	-2,3	-9,2	5,6	23,2	18,8	35,6
<b>2022 urtarrila</b>	27,3	21,6	36,3	42,2	25,5	91,5
<b>otsaila</b>	15,6	13,8	17,9	35,5	27,7	61,8
<b>martxoa</b>	9,7	18,0	-0,8	21,9	27,5	6,3
<b>apirila</b>	21,3	23,0	18,9	18,0	15,2	25,9
<b>maiatza</b>	25,5	24,8	26,4	45,6	39,1	63,4
<b>ekaina</b>	21,2	11,6	34,1	22,8	14,6	48,2
<b>uztaila</b>	-0,4	10,1	-11,9	19,2	12,4	40,4
<b>abuztua</b>	29,0	20,3	39,3	26,8	12,2	71,2
<b>iraila</b>	26,8	13,4	45,7	18,0	10,5	41,5

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

## 4. taula- PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	-0,2	-1,1	3,7	1,6
2007	1,8	0,9	5,3	3,7
2008	0,2	-1,1	0,2	4,2
2009	-6,1	-7,1	-1,1	-4,8
2010	-2,8	-3,0	-9,7	-0,6
2011	-0,7	-0,3	-11,6	0,5
2012	-3,1	-3,0	-11,2	-2,0
2013	-2,9	-3,3	-9,2	-1,0
2014	-0,7	-2,3	-4,1	2,9
2015	2,1	1,6	-5,6	3,5
2016	2,8	1,7	-7,9	5,5
2017	2,6	2,6	-3,6	3,1
2018	3,6	3,0	3,1	4,5
2019	2,2	2,0	1,2	2,6
2020	-2,2	-2,0	-4,6	-2,3
2021	1,1	0,1	-1,8	2,6
2021 (1)	1,0	-0,4	-2,1	3,1
2022 (1)	2,1	1,6	-1,1	2,9
2020 I	2,2	2,0	-4,0	2,8
II	-5,0	-2,7	-4,0	-8,0
III	-3,9	-4,1	-4,6	-3,5
IV	-2,0	-2,9	-6,0	-0,6
2021 I	-3,0	-3,6	-4,3	-2,1
II	3,4	0,3	-0,9	7,7
III	2,9	2,1	-0,9	4,0
IV	1,4	1,6	-1,0	1,2
2022 I	2,3	1,5	-0,4	3,3
II	2,7	2,2	-1,0	3,6
III	1,3	1,0	-2,0	1,8
2021 urtarrila	-3,1	-3,9	-5,6	-2,0
otsaila	-3,2	-3,5	-3,8	-2,6
martxoa	-2,6	-3,3	-3,6	-1,7
apirila	3,5	-1,2	1,6	10,1
maiatza	3,3	0,4	-2,4	7,4
ekaina	3,5	1,7	-1,8	5,9
uztaila	3,1	1,7	-2,3	5,1
abuztua	3,1	2,2	0,5	4,5
iraila	2,4	2,5	-0,9	2,4
urria	1,8	1,9	-0,9	1,8
azaroa	1,3	1,2	-0,9	1,4
abendua	1,0	1,8	-1,4	0,3
2022 urtarrila	2,3	1,3	-0,7	3,6
otsaila	2,2	1,4	-0,9	3,2
martxoa	2,4	1,9	0,3	3,2
apirila	3,5	2,6	-0,1	4,7
maiatza	2,6	2,0	-1,0	3,6
ekaina	2,1	1,9	-2,0	2,5
uztaila	2,0	1,9	-2,0	2,3
abuztua	0,7	0,6	-2,5	1,0
iraila	1,2	0,6	-1,5	2,0

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

5. taula – PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
<b>2006</b>	4,1	2,8	7,8	7,7
<b>2007</b>	5,9	5,2	10,0	6,9
<b>2008</b>	5,1	3,5	5,0	10,7
<b>2009</b>	-5,3	-6,8	1,0	-2,9
<b>2010</b>	-1,3	-0,8	-9,4	-0,2
<b>2011</b>	2,5	4,0	-11,5	1,8
<b>2012</b>	-2,4	-2,1	-12,7	-0,9
<b>2013</b>	-1,5	-1,2	-9,4	-0,7
<b>2014</b>	-0,1	-0,5	-4,2	1,6
<b>2015</b>	2,1	2,0	-3,3	3,1
<b>2016</b>	2,5	1,9	-8,8	5,2
<b>2017</b>	4,1	4,2	-5,1	4,6
<b>2018</b>	4,6	4,1	6,4	5,3
<b>2019</b>	3,7	3,0	3,7	5,1
<b>2020</b>	-3,0	-3,4	-2,9	-2,3
<b>2021</b>	4,3	4,0	-0,3	5,4
<b>2021 (1)</b>	5,5	5,1	0,6	6,7
<b>2022 (1)</b>	6,5	6,6	4,2	6,4
<b>2020 I</b>	2,4	1,6	-1,5	4,2
<b>II</b>	-9,3	-8,4	-6,8	-11,2
<b>III</b>	-4,4	-5,4	-1,9	-2,7
<b>IV</b>	-0,7	-1,4	-1,3	0,6
<b>2021 I</b>	-0,1	-0,1	-1,1	0,2
<b>II</b>	11,9	10,7	3,2	14,9
<b>III</b>	5,2	5,2	-0,1	5,8
<b>IV</b>	1,3	1,2	-2,7	2,0
<b>2022 I</b>	6,1	5,6	2,8	7,0
<b>II</b>	6,9	7,5	3,1	6,2
<b>III</b>	6,4	6,6	6,8	6,1
<b>2021 urtarrila</b>	0,0	0,5	-3,8	-0,5
<b>otsaila</b>	-3,4	-3,5	-2,7	-3,4
<b>martxoa</b>	3,1	2,4	2,5	4,4
<b>apirila</b>	12,4	9,3	5,8	19,1
<b>maiatza</b>	11,5	10,6	0,1	14,4
<b>ekaina</b>	11,8	12,1	3,7	12,1
<b>uztaila</b>	6,5	6,3	3,9	7,3
<b>abuztua</b>	4,9	4,7	-2,1	5,7
<b>iraila</b>	3,4	3,7	-2,8	3,6
<b>urria</b>	2,8	3,4	-0,5	2,1
<b>azaroa</b>	0,7	0,3	-1,9	1,7
<b>abendua</b>	0,9	0,5	-4,4	2,0
<b>2022 urtarrila</b>	2,9	2,1	-2,1	4,6
<b>otsaila</b>	7,8	8,6	0,9	7,0
<b>martxoa</b>	7,4	6,3	8,5	9,1
<b>apirila</b>	6,7	7,4	5,6	5,5
<b>maiatza</b>	7,9	7,7	-1,2	9,0
<b>ekaina</b>	6,3	7,5	4,6	4,7
<b>uztaila</b>	6,6	6,6	11,5	6,0
<b>abuztua</b>	5,7	5,4	-0,8	6,7
<b>iraila</b>	6,8	7,5	8,4	5,6

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan